

Duela 200 urteko hezurren aurkikuntza

ARRASATE ^{PRESS}

1993ko uztailak 9

199. zenb.

Kultura

Filmaketa

Santa Agedan

Elkarrizketa

"El Caliz"

kuranderoarekin

**Kooperatiben
IV. Kongresua**

Billabañez (San Andres)

Lauaxeta etxe ondok doien Dragoi bidien arrastuek jarraituaz, Olandixotik aurreratuaz, San Andres auzo gaingairien, Billabañez basarrixetopau gauen. Mundrauetar askondako ezezaune dana, ix Bedoñatik bakarrik ikusten dalako.

Bertan Marilu Herrarte Garai bertako alabie, Alexander Learreta Solozabal bere gizona, euren semiek Alexander eta Iban eta Mariluren bi anai bizi die.

Alexander Learreta gerrikarra da izetetz eta gurasuek bertako bonbardeaketa famatuen hil eutsien. Gaur egun transportista lanetan darutzo.

Etxie eurona daue gerra



aurtxuen Pedro Garai Mariluren aittejaunek erosittekue. Aurreko ugezaba Monterroneko kondie zan. Errentie pagetako modu bat Monterroneko parte eta jardinetako

zainketan parte hartzie zan.

Ezaunek izen die Billabañezeko karnazeruek: Alfonso Elgoibarren, Juan Mari Oñetin eta Ambrosio Mundraueko Ferrerías kalien.

Mariluren ama, Luisa Garai Arregi bertako alabie zan eta aitte, Euxebio Herrarte Aranzabal Gellauko Arkarazuenekue. Euxebio fabriketan lanien ibili zan, lelengo Atxabaltako Lezamenien, gero Tijerasen eta azkenik Polmetasan zaindari.

Billabañez haxe ezkutuen dau, eguzki begixen, horregatik da gox jeneruendako leku egogixe. Denpora baten ezaunak zien bertako mallukixek, Bitorixeraino erueten zittuen, eta baitte Mundraueko plazara beste jenero batzurekin batera.

Nahiz eta gaur egun ortuko jenerorik saldu ez, oso estimaue da Mundrauen Mariluk einddeko ogi ederra.



HONETAN PENTSATZEN ARI BAZARA, ETA

GUSTATZEN BAZAIZU, ETORRI



ERA.



2 SOLAIRUTAN, DENETIK AURKITUKO DUZU:

• **LEHENENGOAN:**



• **BIGARRENEAN:**



JENDE



LAGUNDUKO DIZU BEHAR DUZUNA AUKERATZEN.

JAI ZORIONTSUAK PASAKO DITUZULAKOAN,

LORAMENDI BIROLAK

Zatoz ezagutzera

ZUHAITZ

jaketxea!



Liburu eta paperdenda
Bidaiarako eta
larruzko artikulua

Iturriotz, 4 Tfnoa 79 14 84

VE ECUADOR

Bidaiak

Kontzeziño, 2
ARRASATE
Tfnoa: 79 14 06



Aldizkari honek
Gipuzkoako Foru Aldundiaren
laguntza jaso du



Aldizkari honek
Eusko Jaurlaritzako Kultura eta
Turismo Sailaren laguntza jaso du

Putreak dantzan San Juanetan

Putrea: sarraskia edo akabatutako animalien okela jaten duen hegazti harrapari handi lepaluze soila. Hiztegiak putrea definitzen duen modua da. Arrasatear gazte batzuen beste definizio batean. Nik putretzat jotzen dut nire burua. San Juan jaietan gutxien egon naizen urtea izan da aurtengoa eta, aldi berean, San Juanetaz behin ere baino berba gehiago egin dudana. Bai, 'kuadrilak' eta udaletxearen arteko historia ospetsua dela eta. San Juanetako egun bakarrean ibili nintzen kalean. 26an, sapatua; eguerditik gauera kalean izan nintzen. Beraz, batez ere ikusitakoan oinarrituko naiz.

Kalean, "Udaletxe giroa putre giroa" mezua zabaltzen zuen pegatina ikusi nuen. Urte gehienetan moduan, zenbait lagunekin herri bazkarira joan nintzen, Zaldibarrera. Euren artean ez zen emakumezkoik -hori uste dut- baina SUDCekoek bapo eman zituzten bazkaltzen. Nahiko mahai zerbitzen dute emakumezkoek urtean zehar baina egun horretan ez litzateke txarra emakumezkoak ere zerbitzen ikustea. Laburtuz, primeran. Baita bazkalosteko berriketa eta dantzaldia ere. Putre batek tangoaz apur bat irakatsi zidan. Putre haur bat aurrean eta putre zaharra atzean, atalataikoan ere jardun nuen gustora.

Erdian 20-25 bat jarri ziren geroxeago, arratsaldeko 6a aldera, alternatiboa ei zen zerbaiten izenean. 'Kaleka' jolastu behar ei zuten, baina ez nuen ikusi inor kalera joaten, askok pilota ikutu ere ez zuten ikutu. Zertara joan ziren orduan? Ez nituen oso konbentziturik ikusi eta zenbaitengan 'cara de circunstancias' hori ere somatzen zen; igartzen zen han egotea, putre guztien aurrean, gogorra egiten zitzaie —hori uste dut behintzat—.

Baina San Juanak udaletxeak antolatzen ditu, ala? Eta onartuaz, akaso, diseino hobe bat eta jai parte hartzaileagoak egin daitezkeela, SUDCek, Arrasate Musikalek, AEDk, Lore Gazteak, Tritikilariek, gaiteroek, kuadrilek... guzti horiek ez al dituzte San Juanak antolatzen? San Juanak ondo sustraitzearen lana izugarria da baina azken urteetan pauso garrantzitsuak eman dira. Guztien aldetik. Guztia hobetu liteke, noski (egitarau alternatiboa ere baietz suposatzen da, ez?), eta guztion -guztion- artean "alternatibo" zein "ofizialista".

Hala ere, puntu bat oso kezagarritzat jotzen dut: norbaitek pentsatzen badu herri batek festarako behar duen ilusio maila "kilo" bat ala birekin erosi daitezkeela, jota dago. Are gehiago, gainera, bere burua gazte alternatibotzat jotzen badu.

XABIER LETONA "ATAXI"



• ARRASATE PRESS •

Argitaratzailea: ARKO (Arrasate Komunikabideak) Azoka kalea, 1. 20.500 - ARRASATE (Gipuzkoa) Tfnoa: 77 05 65. Faxe: 77 09 40


Laguntzailea: Arrasateko Udala. **Zuzendaria:** Arantzazu Loidi. **Kazetariak:** Luis Fernandez, Rosa Mondragon. **Publizitatea:** Amaia Gabilondo (77 08 15). **Administrazioa:** Agurtzane Gaintzarain (Tfnoa: 77 08 15). **Maketzailea:** Goio Arana. **Kolaboratzaileak:** Mikel Irizar, Blanca Jauregi, ASA taldea, Sabin Arrieta, Jon Garai, Joxe Ramon Elortza, Amaia Jauregi-Arraburu, Udalako Ingurugiro Eskola, Juan Bautista Agorria, Leintz Bertso eskola, Jose Mari Astigarraga, Jesus Larrañaga, Matilde Sainz, Iker Barandiaran, Jon Iñaki Lasa, Xabier Letona, Iñintza, Mikel Olabe, Mari Tere Alonso, Liher Larrea, Antton del Campo, Sorginak, Kopi, Danel Goikolea, Iban Ostondoa, Haritz Larinaga, Cesar Cimiano, Leire Zubikarai, Koldo Zubizarreta, Joseba Vallés, Agerre, Mario Egüés. **Banaketa arduraduna:** Jabier Ozaeta. © ARRASATE PRESS. **Tirada:** 6.300. **Loge-Gordailua:** 1124/88. **ISSN:** 0214-4654. Frankeo kontzertatua. **Inprimategia:** Gertu Koop. E. (Zubillaga, Oñati).

ARRASATE PRESSek ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esaneta eta iritzien erantzukizunik.



ARRASATE PRESS
paper ekologikoan egiten da.

Azaleko argazkia: Luis Fernandez



ZENBAKI

Aholkularitza

Kontabilitatea
Fiskalitatea
Lana
Juridikoa
Finantzaketa
Aseguruak

Basabe industrialdea
ARETXABALETA
Tfnoa: 79 88 75

Biteri Etorb. 15
ARRASATE
Tfnoa: 77 12 39

Garaiko perretxikoak urte guztian zehar!!



• Eguneko menua

• Asteburuetan menu berezia

• Paregabeko karta

RUTH GATZAGA

Olarre kantoia. Tfnoa: 79 59 57
ARRASATE

Memesa

79 42 22

HIES EKIMENA

Astelehen, astearte
eta ostiral
5etatik 8etara.

Tfnoa: 79 26 99

Gogorak, bigunak eta bestelakoak

Batek baino gehiagok pentsatuko du denboran galduta nabilela, eta despitte baten eraginez, Gabon sasoiaren bageude bezala, hain egun gogoangarrietan mahaira zein turroi klase eraman erabaki ezinik nabilela.

Baina ez, ez da janarie dagokien alderdia eta Gabonetako postreena egun honetan luma hartzera ekarri nauen gaia. Eutsitako amorrua eta kolpe, tortura eta zigorren bidez inposatutako hainbeste isiltasunek sortutako inpotentzia da idaztera bultzatzen nauena.

Kolpe demokratikoak, tortura demokratikoa, zigor demokratikoak, kartzelako nire 12 urteak halako kalbario demokratikoa egin dutenak, izan ere ehun urte bizi izanda ere, ezin izango nuke hainbeste miseria ahaztu.

Baina nire aldetik egoista litzateke nire minetara, orbaindu gabeko nire zaurietara mugatzea, Euskadin zehar pasiatzen duten tipo demokratikoen demokratikoki diseinatutako azken jipoiaren ondorioz nire kide batzuk odoletan dauden artean.

Horrela, hainbeste parafernalia demokratikoren artean, egunkari bat iritsi da nire eskuetara (bide batez esanda, hura ere aztindu demokratikoak jasaten ari da). Bat ere harridurarik gabe

irakurri dute bertan, euskal preso politikoaren aurkako errepresioaren diseinatzaileak, hau da, P.N.V., horiek elkarrengana biltzearen aurka dagoela. Irakurtzen jarraitu dut, eta, joño, hor dago arrazoia. Kontua da, inteligentzia-alarde baten, preso kolektiboaren %60 baten bigunek eta %40an gogorrek osatzen dutela atera dute konklusio gisa.

Batek, noski, ez daki zertan oinarritzen diren hori esateko, baina horrelako erabaki jakintsura iristeko ikerketa zehatzen bat eginik izango dute. Seguru asko, torturatzaile partikularrak izango dira, egindako lanaren emaitzen txostena jasoko zuten, eta bertan, torturatua fitxan, egurtutako preso bakoitzaren erreakzioa izango da jasota. Azaldu egingo dut: "Urliak, gaur gultzurrunetan eman zaion ostikadaren aurrean, lehen aipatutako tipoa lurrean etzanda geratu da, geldirik, eta minez intzitarra. Ondorioz, preso hori biguna dela esan daiteke, izan ere, kolpea ez zen horrenbestearinokoa".

Beste bat: "Gaurko egunez, X presoak, bere errekreoko ordua gozatu ahal izateko biluztera, flexioak egitera, zilmuturra erakustera behartu dugunean, kakatara bidali gaitu, eta patioko ordua ipurtzulotik sar deza-

gula esan digu. Horrela, beraz, ez dago zalantzarik benetako tipo gogor baten aurrean gaudela, eta horregatik adierazten dugu hemen, behar diren neurriak har daitezen".

Horrela sailkatu al duzue, Jaun demokratikook, preso kolektiboaren gogortasun eta biguntasuna? Edo, gure familiartekoei bidaltzen dizkiegun gutunak irakurri zure intimitatean sartzen zaretenean, gure sentimenduekin jolas egin duzue ondorio horretara iristeko? Ala gure senitartekoekin izaten ditugun elkarrizketen grabazioek eramaten zaituztete espekulatza? Hau da eskaintzen duzuen demokrazia?

Bada, seguru izan ez zuek, ez eta gu matxakatzeko agindua zuengandik jasotzen duten borroek ere ez dutela lortuko gu zuen traiziora eramaterik. Ez nahastu zuen desioak errealtatearekin, eta ez ezazue ezarritako sufrimendua jasateko dugun gogortasun edo biguntasunarekin espekulatu. Begiraiezaguzue benetan garen bezala; zuek sekula izan ez duzuen duintasunaren jabe diren gizon eta emakumeak.

PAKO MARTIN ROBLES
PUERTO DE SANTA
MARIAKO PRESOA


(Erredakzioan itzulia)

MENDI taberna

Mendi da zure etxea

Maalako Errabala, 4 Tfnoa: 79 20 54 ARRASATE

Oporretarako egin duzu planik?



Aritz Alberdi
Aita Menniko langilea
(22 urte)

Aurten lan egitea tokatuko zait. Urria bitartean behintzat lan egin beharko dut. Beste urte batzutan irten naiz baina aurten ez.



Belarmina Martis
Etxekoandrea
(32 urte)

Portugalera goaz, gu ere bertakoak gara eta urtean zehar ahal izaten dugunean bertara joaten gara. Abuztuaren hasieran joango gara.



Pako Garcia
Jubilatuta
(70 urte)

Ez noa inora ere. Zahartuta nago eta herrian txikito batzuk hartu eta pasiatzen pasatuko ditut oporrak.



Brigi Gonzalez
Etxekoandrea
(26 urte)

Avilara noa, amaginarreba eta aitaginarreba bisitatze-ra. Ia urtero joaten gara bertara.



Eider Muruamendiaraz
Zuzendaritzako
idazkaria (19 urte)

Abuztuan AEDk antolatu dituen auzolandegietara joateko asmoa daukat. Beste batzutan gurasoekin irten naiz, baina aurten Iparraldera noa.



Jabier Fernandez
Bergarako langilea
(31 urte)

Bai, aurten Portugalera noa. Urtero toki desberdinak bisitatzea gustatzen zait.



Mari Carmen Sanchez
Fagorreko langilea

Aurtengo oporretan 15 egun lan egin beharko dut eta beste 15 egunetan jai hartuko dut. Beste urte batzutan kanpora irten izan naiz baina aurten hemen geratzea tokatuko zait.



Sebastian Txintxurreta
Fagorreko langilea
(46 urte)

Aurten Yemen bisitatuko dut, iparra eta hegoa bisitatzeko asmoa dut. Iaz ere Mexiko eta Guatemalan egon nintzen.

F A N C Y

Bizkaia Etorbidea, 1 Etxabea ARRASATE Tfnoa: 77 14 24

Lore lurrindegia

Olarte kalea, 10 ARRASATE fnoa: 79 14 99

BEHARREZKO TELEFONOAK

Eritetxeak	
Arrasateko Eskualde-Ospit.	79 53 00
Igualatorioa	79 05 00
Santa Agedako Ospitalea (gizonak)	79 39 00
(emakumeak)	79 44 11
Buru osasunerako zentrua	79 90 11
Gurutze gorria	
Bergara	76 56 76
DYA	
Antzuola	76 62 91
Anbulatorioak	
Arrasate (Larrialdiak)	79 13 57
(Txanda hartzeko)	77 03 46
.....	77 07 21
Oñati	78 08 52
Eskoriatza	71 44 52
Aretxabaleta	79 74 58
Aramaio	(945) 45 51 16
Anbulantziak	
Gipuzkoako ambulanziaz	45 87 44
Udalzaingoak	
Oñati	79 04 11
Bergara	76 14 69
Arrasate	79 14 39
Aretxabaleta	79 10 52
Eskoriatza	79 03 22
Ertzaintza	
Arrasate	79 71 99
Suhiltzaileak	
Udal taldea	79 09 00
Udal taldeko suhiltzaile burua	79 20 72
Zubillagako Eskualde-Parkea ..	78 28 00
Matxurak	
Urak (udal zerbitzua)	79 09 00
Elektrizitatea (Iberduero)	79 05 81
Gasa	900 40 05 23
.....	79 78 44
.....	79 76 78
Garraioak	
Taxiak	79 12 22
P.E.S.A.	79 14 19
Hirugarren adinekoentzako zentruak	
Iturbide Egoitza	79 72 11
Abaroa jubilatuen egoitza	79 81 57
Kontsumitzailearentzako informazioa	
Deba Garaiko Kontsumitzaile eta Erabiltzaileen Elkarte	79 87 77
KIUB-OMIC	79 51 55
Monterrongo liburutegia	
Monterron	77 01 05

GOARDIAKO FARMAZIAK

Ostirala 9	
Egunez: Español. Iturriotz.	
Gauetz: Estella. Matxietegi.	
Larunbata 10	
Egunez: Corcuera. Musakola.	
Gauetz: Mozos. Pedro Deunaren.	
Igandea 11	
Egunez: Irizar. Erguin.	
Gauetz: Mozos. Pedro Deunaren.	
Astelehena 12	
Egunez: Amezua. Santa Marina.	
Gauetz: Camacho. Oxirondo.	
Astearte 13	
Egunez: Ruiz. Maala.	
Gauetz: Puy. Barrenkale.	
Asteazkena 14	
Egunez: Morales. San Andres.	
Gauetz: Guallar. San Antonio.	
Osteguna 15	
Egunez: Azkoaga. Ferrerías.	
Gauetz: Mozos. Páedro Deunaren.	

9 OSTIRALA

ZINEA

"Ella nunca se niega" (7, 10)

ROCK KONTZERTUA

"Rich Kids on L.S.D." eta "Karkaxa" taldeekin rock kontzertua. Gaueko 9etan. Arrasateko Gaztetxean. Sarrera: 500 PTA.

FOLK KONTZERTUA

"Lugarri" taldearekin folk kontzertua. Gaueko 11etan. Eloorrioko Kafe Ateneon.

PINTURA ERAKUSKETA

Karmen Garai pintorearen pintura erakusketaren lehen eguna. Monterronen. Uztailaren 25a bitartean egongo da zabalik.

MARI KARMEN GARAI-REN PINTURA ERAKUSKETA

Gaur, uztailak 9, Mari Karmen pintore arrasatearraren pintura erakusketa zabaldu da Monterronen. Arrasateko Musakola auzoan jaio zen Mari Karmen eta txikitatik eskolako marrazkietan hasi ziren agertzen bere lehen aztarna piktorkoak. Urte askoan Arabako Lautadako Arrieta herrian bizi da eta oraingoa erakusketa honekin herrira itzuli da. 31 kuadro ikus daitezke erakusketan eta erabilitako gaien artean: bodegoiak, itsasoa, paisaiak, erretratuetak... Datorren uztailaren 25a bitartean egongo da zabalik Monterron erakusketokian.

10 LARUNBATA

ZINEA

"Un día de furia" (5, 7.30, 10)

LOREN LEHIAKETA

Loren lehiaketaren amaiera. Ibai Artek antolatuta. Arrasateko erdi aldeko etxeetan. E-maila publiko egingo da.

11 IGANDEA

ZINEA

"Un día de furia" (5, 7.30, 10)



ZALDIAN IBILTZEN IKASTEKO IKASTAROA

Uztailan eta irailean zaldian ibiltzeko ikastaroak antolatu dira Urkulun. Ikastaro bakoitza bi aste-takoa izango da eta egunero ordu bate ibili ahal izango da zaldian. Ordua bakoitzak aukeratzen duena izan daiteke, gainera. Langabetu eta ikasleek 6.000 PTA eta besteek 9.000 PTA ordaindu beharko dute.

UZTAILEKO EKINTZA KULTURALAK

Pasa den astean hasi eta hurrengo astetan ere ekintza ugari burutuko dira Monterron Parkean. Esate baterako datorren ostegunean, "Makinabaja 2" pelikula botako da gaueko 10.30etan. Uztailaren 22an berriz, folklore emanaldia Kolonbiako "Yurumangi" talde folklorikoarekin. Kasu honetan sarrera 500 PTAkoa izango da eta eguraldi txarra eginez gero, Amaia antzokian egingo da. Ekintza hauetaz gain, uztailaren 18an Igoa-Zubietara mendi irteera egingo da. Besaidek antolatzen du irteera eta irteera goizeko 7etan garibai geltokitik egingo da. Horretaz gain, Santamaina, Maalako Errabala, Ferrerías kalea eta Kanpazarreko jaiak ospatuko dira

12 ASTELEHENA**ZINEA**

"Un día de furia" (7,9.30)

PINTURA ETA ZERAMIKA ERAKUSKETA

Aita Menniko gaixok eginiko pintura eta zeramika erakusketaren lehen eguna. Uztailaren 16a bitartean egongo da zabalik. Irakaslea: Jon Balenziaga.

13 ASTEARTEA**ZINEA**

"Un día de furia" (7,9.30)

GASTEIZKO JAZZALDIA

"Hermeto Pascoal e grupo" eta Tito Puente eta "Los hombres de oro de jazz latino"ren emanaldia. Mendizorrotzan. "Stephen Scott Trio"ren emanaldia, Canciller Ayala hotelan.

MONDRAREN BILERA OROKORRA

Mondra futbol taldeare biler oro korra. Arratsaldeko 6.30etan. Udaletxeko pleno aretoan.

14 ASTEAZKENA**ZENEMATEA: ELKARRIREN AFARIA**

Uztailaren 16ko Elkarriren afaria joateko izena emateko azken eguna. Zabalik edonorentzat. 79 41 15 telefonora deitu.

GASTEIZKO JAZZALDIA

"The brecker brothers band" eta "Bill Frisell band" taldeen emanaldia. Mendizorrotzan.

15 OSTEAGUNA**ZINEA MONTERRONEN**

"Makinavaja 2" pelikularen emanaldia. Gaueko 10.30etan. Monreron Parkean. Eguraldi txarrekin Amaia antzokian. Sarrera: 300 PTA.

ANTZUOLAKO JAIEN HASIERA

Umeen jolasak, arratsaldeko 4etan; buruhandiak, 5.30etan; Irinmodo urtekarriaren aurkezpena, 7etan; meza eta salbea, 7.30etan; dantzariak, 8.30etan; dantzaldia, 10etan; suzko zezena gaueko 12etan.

GASTEIZKO JAZZALDIA

"Abbey Lincolan Quartet" eta "The Jazz Masters" taldeen emanaldia. Mendizorrotzan.

FUTBITO TXAPELKETA

Uribarriko jaietan egingo den futbito txapelketan parte hartzeko izena emateko azken eguna. Branka tabernan.

"GAZTEAK MARTXAN" ARGAZKI LEHIAKETA

ASA eta Arrasateko udaleko gazte zerbitzuak "Gazteak Martxan" argazki lehiaketa antolatu dute. Bi maila bereiztuko dira: Deba Garaiko 14 urtetik 20ra bitarteko gazteak eta 21etik 35era bitarteko edozein. Argazkiak zuri-beltzez nahiz koloretan aurkez daitezke. Urrian aurkeztu beharko dira lanak eta sariak honako hauek izango dira: lehenak 20.000 PTA jasoko ditu, bigarrenak 10.000 PTA eta bigarren mailan 50.000 PTA lehenak, 35.000 PTA bigarrenak, 25.000 PTA hirugarrenak eta 20.000 PTA laugarrenak.

FUTBITO TXAPELKETA

Uztailaren 17 eta 18an burutuko den futbito txapelketa antolatu da Uribarri auzoan. 24 ordu iraungo du futbito txapelketak eta interesatu guztiek parte hartzerantz animatu nahi dituzte antolatzaileek. Izenematea uztailaren 15a baino lehen egin beharko da Branka tabernan.

**UZTAILAK 16: EUSKARAREN EGUNA**

Ostiralean, uztailak 16, udalekuetako lehen txandaren amaierarekin batera, euskararen eguna ospatuko da. Eibarko Astixa taldekoek eta AEDkoek elkar ezagutzeko hainbat ekintza egongo dira. 11etan harrera egingo zaie, ondoren jolasak eta eguerdiko 3etan bazkaria egingo da. Bazkaria bukatu bezain laster dantzaldia ere egongo da. Bigarren txanda 18an hasiko da.

**TOURRERA BIDAIA**

Eskoriatzako Cubino Peñak datorren uztailaren 21eko etapa ikusteko bidaia antolatu du Saint-Lary-Soulan herrira. Interesatuentzat gogoratu izena emateko epea datorren uztailaren 18an bukatzen dela. Prezioa 3.700 PTAkoa da eta izena emateko Eskoriatzako Zarautarra tabernara edo BaskoTourera zuzen zaitezketekete.

“Sindikatuiei esker, krisiaren pisua oso gaizki banatu da. Gizonezkoek irabazten dute, Administrazioa eta enpresa handiak bezalako sektore babestuetan lan egiten dutenek batez ere, eta hiru kolektibo handi ateratzen dira galtzen: gazteak, lanpostu suntsiketaren ondoriozko soberakinak eta emakumeak. (...)

Emakumeen hirulaurdenak badakite, edo jakin behar lukete, lana aurkitzeko oso aukera gutxi dutela, edo aurkituta ere soldata eta segurtasun mailarik bajuenetan egongo dela. Eta luzaroan ez dira gauzak aldatuko. (...)

Emakumeek berdintasun legala lortu dute, beste sexuarekin harreman berdintsuagoa, ahots apal bat politikan eta zabalxeagoa kulturatan. Baina dagokien lan eta soldata zatia ez dute lortu. Eta hori lortzen ez duten artean ezin esango dute sexuen berdintasuna lortu dutenik.

Orain ez dago hesi legalik, emakumeek euren ahotsa dute eta hori baino garrantzitsuago dena, euren buruaz duten ikuspuntua ez dago gizonezkoen iritziaeren menpe. Egoki ikusten duten adina erantzukizun hartzeko gertaturik daude. Baina ekonomian eta lanean aurkitu dute euren Txinako harresia, gizonezkoaren hautsiezinezko gotorlekua, denetan inportateena delako, zalantzarik gabe. Gizonezkoek azkenengo jaregingo dutena eta emakumeek azkenengo hartuko dutena”.

Antton Perez Callejak

EMAKUNDE

“Egia esan, etxean izan nuen musika zaletasunarekin bidea nolabait eginda izan nuen. Musikarako ‘gaitasunak’ garatzeko orduan, uste dut familiako zaletasun horretatik edan izana funtsezkoa izan dela, aitarengandik jasoa batez ere, betidanik jo izan baitu pianoa. Hautzaroa garai kritikoa da belarria egiteko, bakoitzaren berezko ezaugarriez gain”.

Beatriz Arzamendi 93-7-5


EL MUNDO
PAIS VASCO

Hemen daude udako merkealdiak

Udako merkealdiak duela egun gutxi iritsi dira gure herrietako eskaparateetara, eta haiekin iritsi dira zoramenezko prezioak, merkekeriak, karrerak eta pilaketak lokal komertzialetara. Erosleak dendetara abiatzen dira, artikuluak ezinezko prezioetan erosteko aukera bakan horien bila.

Aurten, krisi ekonomikoagatik, iazko udan baino gehiago aurreratu dituzte merkealdiak merkatariek. Indarrean dagoen legediak ez du zehazten merkealdien hasiera eta amaierarako datarik, baina ohituraren eraginez, komertzioek aldi berean hasi izan dituzte urte askotan. Baina Jarduera Komertzialen Legeak jasotzen du puntu bat: merkealdiek hilabete iraun behar dutela uda garaian eta beste hilabete negu garaian.

Kontsumatzaileen artean nahasketak izaten dira, ea zer den merkealdia, zer likidazioa eta zer saldoa. Merkealdiak, gutxienez hilabetez salgai egon diren produktuak hartzen ditu, kalitatezko produktuak dira, sasoi aldatetagaririk merketu egiten direnak, eta hortaz, kalitate-prezio erlazioa mantenu behar dutenak. Etiketan ere kasu egin behar du kontsumatzaileak, horietan prezio merketua eta jatorrizko tenporadakoa egon behar dira markatuta. Komertzioaren batzuetan normala izaten da merkealdietan kreditu-txartelik ez onartzea, baina kontsumatzaileak eskubidea du kreditu-txartelaz ordaintzeko txartelak onartzen dituztela dioen ikurra daukaten lokaletan. Azkenik, kontsumatzaileak akatsak daukaten artikuluak itzul egin ditzakete, urteko beste edozein sasoiaren bezala.



Rikardo Oleaga
Eroski aldizkarikoa



URONDO
elektrizitatea

- * Elektragaiak
- * Instalazioak
- * Automatismoak
- * Argiztapena
- * Bobinaketak
- * Proiektuak


Musakola auzoa, 26. Kataide Industrialdea 5. Pabiloia. 214 postakutxa
Tfnoak: 79 78 15 / 77 10 42 Faxa: 77 14 76
ARRASATE

Uherkape: Azatzakoen protesta

Azatza auzoko bizilagun kooperatibak gogor salatu ditu, agiri baten bidez, udalaren eta Construcciones Irgala enpresaren jarrerak. Uherkapeko auziaren azken kapitulu hau, alkatetzak mendi magalari eutsi behar dion horma egiteko agindua dekretatu ondoren. Azatza auzokoak dira mendian mugiru ziren etxeak, eta horma, teoriarik, beste kalterik jasan ez dezaten egin behar da, baina hala ere, eurak eraikuntza horren aurka daude. Azatzakoek kaleratutako agiri batean diotenez, "Uherkapeko eskabazioak basatiak dira eta haien ondorioak sunsitzailak". Horrez gain, alkatetzaren jarrera "zuzenbidea abusua" dela diote, eta auzia epaitegietan konpondu beharko dela gehitzen dute. Beraz, horma egiteko modurik ez dago oraingoz, eta inplikaturako partearen arteko akordioak ezinezkoa dirudi.

Zaborra eta isunak

Zabor bilketaren ordutegi eta guneak gogoratzen dituen bandoa kaleratu zuten joan den astean alkatetzak. Udalak sarritan aipatu izan du askok ez dituztela bilketa ordutegiak errespetatzen, eta zabor poltsak edozein baztarretan uzten dituztela. Hori dela eta, gogorakizunarekin bat, isunak ezarriko direla aipatzen da bandoan. Arautegia bete ezean, 5.000



Rocio-ko prozesioa

Al-Andalus elkarteak antolatutako Rocio-ko prozesioa burutu zuten joan den igandean Udala auzoan. Hirugarren urtea da jai hau antolatzen dutena, eta 600 bat lagun bildu ziren, gehienak Arrasateko andaluziarrak eta haien ondorengoak biltzen dituen Al-Andalus elkarteak, baina baita Lasarte, Andoain, Santurtzi eta Ermutik autobusez etorritakoak ere. Eguraldi ez zen aproposena izan, baina giro aparta bai.

PTAkoa izango da isuna, eta 10.000 PTAkoa araua berriz haustekotan, erreizindentzia kasuetan.

Ferixalekuko ikastetxea

Uztailaren 1ean ziren hastekoak Ferixalekuko ikastetxeko obrak, baina oraindik ez dira hasi, eta bertan dira, goiko solairuko etxebizitzetan, *squatter* edo etxe-okupatzaileak. Etxeak husteko abisua eman zieten udaltzainek okupatzaileei astelehenean. Obretan egin behar den lehenbiziko gauza, karga-froga deritzona da, eraikuntzaren erresistentzia neurtzeko frogara, eta horretarako hutsik egon behar da

Ferixalekua. Oraindik etxebizitzetan daude, gainera, bertan legalki bizi diren hiru familiak, eta hauek joaten diren arte ezingo dira obrak hasi. Okupatzaileek ere ez daukate joateko intentziorik, eta, alternatibarik ezean, indarrez atera beharko dituztela abisatu dute.

Motorzale bat hilda

Rodrigo Goirizelaia, 27 urteko gazte arrasatearra, errepide istripu batean hil zen Orthez-en, Frantziako Biarritz eskualdean, joan den ostiralean, uztailaren 3an. Motorrean zihoan Goirizelaia, Frantziako motorzale kontzentrazio batera, istripua izan zuenean.

Hildako bat istripuz Aramaioko jaietan

Astearte goizaldean, Aramaioko Etxaguen auzorako bidean, herriko jaietatik bueltan izandako auto istripu batean, Aramaioko 18 urteko neska gazte bat, Zorione Jauregi, hil zen. Zorionek zeraman autoa maldan behera jausi zen. Autoan zihoazen beste bi pertsona ere zauritu ziren istripu honetan, Alazne Ibabe 19 urtekoa eta Iban K. 14 urtekoa.

AUKEArako ordezkaria

AUKEAko zuzendaritza batzordean erasbiltzaileen ordezkaria aukeratzeko txanda iritsi da. Uztailaren 12a arte dago aurkezteko epea, eta hautagaiek ez dute harremanik izan behar AUKEAko beste parte nagusiekin, alegia, alderdi politikoekin eta kirol elkarteekin.

JAIOTZAK


- Cristian Lorenzo Rodriguez. Ekainaren 23an.
- Alain Sanchez Gonzalez, 24ean.
- Ane Otadui Apaolaza, 25ean.
- Markel Diaz Valle, 26an.
- Eñaut Abarrategi Altuna, 28an.
- Patricia Barquero Garcia. Uztailaren 1ean.

EZKONTZAK

- Juan Manuel Diaz Salamanca & Margarita Estrella Sopo. Uztailaren 3an. Elizaz.
- Emiliano Bollón Jimenez & Yohanne Taveras Mendez. 3an. Elizaz.


HILDAKOAK

- Dorotea Larrañaga Askasibar. Ekainaren 30ean. 84 urte.
- Francisco Arana Uribebarria. Uztailaren 1ean. 73 urte.
- Rodrigo Goirizelaia. Uztailaren 2an. 27 urte.




ERAIKUNTZAK

Olarte, 30 etxabea.
Tfnoa: 79 77 11
Faxa: 79 77 11
ARRASATE
Postakutxa: 118



Iturriotz, 7
ARRASATE
Tefnoa: 790467



JOSE MARI ASTIGARRAGA *

Liburu berria, dotrina ez hain berria

Zelako zalaparta sortu duen "Catecismo" berriak! **Adore** behar da, dena zalantzan eta denak maixu ta "doktore" sentitzen garen hauetan, dotrina trinko eta bete bat, ez bakarrik eleiztarrei baita mundu zabalera borondate oneko gizaki orori, eskeintzeko.

Aldiegokian aterea? Baiezt esango nuke. Gaurko gizonek bizi ditugun desorekak eta astinduak oihuka eskatzen ari dira oinarrizko helburu leku, egia eta ibilbideak.

Lorpen egokia? Hainbat gauza aldatuko nizkioke, baina bai. Kristau dotrinaren bilduma mardul eta aberatsa da; bai, nahiz hutsune eta maizegi teologi eskola batzuen gehiegizko presentzia besteen ahanzturaz, gertatu. Egileek jaso zuten eskaria, orokorrean behintzat, bete dutelakoan nago: "Katoliko dotrina osoa, bai sinismena bai moralak, jasoko duen katekismo edo bilduma nahi genuke, herri desberdinetan idatziko diren beste katekismo eta bildumen erreferen-

tzia izan dadin. Azalpen era bibliko eta liturgikoa izan bedi, dotrina ziburra eskainiz, eta era berean, gaurko bizitzari egokitua. (1985-XII-07an *Munduko Gotzaien Sinodoa*).

Kritika ugari jaso ditu, **baita txalo** indartsuak ere. Nire ustez, moral arloan adibidez, gai batzuetan, motz gelditzen da gure kultura eta desarrolotik begiratzuz gero; baina ikaragarri **aberastu dira sozial gaiak**, adibidez, **pertsonaren** duintasuna, errudunari eta, ezindunari, sor zaizkion errespeto eta babeskoitasuna, eta abar eta abar. Bestalde, **Jainkoaren eta otoitzaren** gaiak eder eta sakon mamitu eta erabiltzen ditu.

Kritikagarriena, niretzat behintzat, **teologi eskola desberdinen presentzia desorekatua** da. Kontzilio ondorengo eta teologo ez-europarren fruituak ez ditu behar bezala jaso. **Aurrera edo beste ikuspegietatik** jotzen dutenak, oraingoz behintzat, Espirituagari aurkitu beharko dute bere

baieztapena. Dena dela, 1960 artekoteologi aurrerapen ugari jaso ditu, eta mundu eta eleizaren alderdi askorentzat aurrepauso handia izango dela uste dut.

Aurkezpen dokumentu bi ditu liburu honek. Biak interesgarri ta pozgarriak; irekiak eta itxaropen sorgai aurkitu ditut. Ondo **irakurri beharrekoak** biak. Ez baita Dotrina hau moral edo galde-erantzunen errezetario bat, ez eta erakutsi itxia; oinarrizko bilduma eta berrikuntzarako **abiapuntu** nahi du izan, ez umekoi, besteen esanerara, ibiltzeko, gizakoi baizik, arduraz, askatasun arduratsuz eta erantzukizunez.

Dotrinak dioen bezala: "Nahiz Errebelazioa emana egon iadanik, ez dago osorik ikertua eta argitua; kristau sinismenari dagokio, gizaldietan zehar eta pausoz pauso, bere eduki osoa ulertu eta aurkeztea". *Dotrina* 66 z. Ba ez dago oraindik zer eginik.

Lorpenak nekez izan oi dira definitiboak. Gaur oinarrizko abiapuntuztat eskeintzen zaigun Dotrina hau, berdin; zenbait kultur eta herrietan zenbait ikuspegi eta puntu gaindituak daude iadanik. Izan ere Espiritu Santua, ez Erromak ez inork ezin du ez gelditu ez ixilarazi.

"Aitak nire izenean bidaliko dizuen laguntzaileak, Espiritu Santuak, Hark erakutsiko dizue dena, eta oroitaraziko Nik esan dizuedan guztia" *Jon, 14-26*. "Eliz-artzai eta eliztarren pentsaera, ekintza, ohiturak, indar moralak, alaitasuna eta itxaropena, berrizatu ta bizkortzeko gida ta bide izan dadila". *Juan Pablo Aita Santuak hitzaurrean*.

* PARROKOA

USTEAK USTE

MORBOA

Barkatu, mordoa esan nahi nuen; baina aste honetako albiste biren inguruan hitz biak lotu dira.

Roneo zenean gorpu batzuen hezurak topatu dituzte astean. **Eta aztarnategi bat aurkitzen** denean auzia jakitunen esku uzten den moduan, **aztarna hauen berriago izateak** berbalekua eta **hipotesi-gaia eman dute herrian**. **Trenbidearen azpian egoteak eta batez ere, Guardozibilen kuartela zegoen tokian aurkitu izanak morbo gehiago erantsi dio kontuari.**

Beste albisteak ere badu desenterramentutik nahikoa. **Hiru anaia ospetsu protagonista dituen pelikula egin nahi da, Panerotarren istoria izkutua, egiazkoa, behin betirako desestalko duena. Eta horrek ere ez zukeen apartekorik, beste anaia biak ere bitxi samarrak izateaz gain, Leopoldo Santa Agedan egon izan ez balitz. Berriro hitz bedeinkatua.**

Baina, beno, ez dakit zergatik esan dudan bi albiste izan direla morbo-dunak, izan ere herri baten, "enterau zara" eta "...entzun dot" hitzekin hasten den edozer gauzak du usain hori. Zer esanik ez entziarriek, testamenduek, harremanek, adarsoinuak.....

ARANTZAZU LOIDI

**Hilbera
kafetegia**

Uribarri Etorbidea
ARRASATE

comercial
san juan

Garibai, 12
Tfnoa: 79 13 05

hikein

MARKO-
JARTZEAK
Zerkaosteta, 4
Tfnoa: 79 13 84

ARRASATE
HOTELA



Biteri, 1 Tfnoa: 79 14 16



Errepide honen azpian trenbidea zegoen, eta horren azpian azaldu dira hezurak.

Zenbait pertsonaren hezurak azaldu dira Roneoko obretan

Astearte arratsaldean, aurkikuntza harri-garria egin zuten Roneoko etxe berrietako langileek lanean ari zirela. Arratsaldeko 6.30etan, eskabadora batek pala bat lurpean sartu zuenean, giza-hezur batzuk azaldu ziren lurpetik, bi metro inguruko sakoneran. Hezurak nahiko txikituta zeuden, bi multzotan pilatuta eta gutxienez bost pertsonenak izan daitezke.

Roneoko terreno zaharretan egiten ari diren etxeetarako ubidea egin behar zuen eskabadorak, baina hezurak ikusi zituenean gelditu egin behar izan zuen. Obratik, Ertzaintzara abisu eman zuten, eta ondoren, epailearen aginduz, lanak gelditu egin zituzten eta hondakinak jaso, ATBko kamarak lekuko zirela. Ertzaintzak epaitegiaren esku utzi zituen hezurak, eta forentseak XVIII. edo XIX. mendekoak izan daitezkeela determinatu du, agian 1810 inguruko independentzia gerra garaikoak. Antza, mutil gazte bat, emakume bat eta fetu bat izan daitezke bertan ehortzitako gorpuetako batzuk.

Hezurak azaldu diren tokiak, zurrumurruetarako gaia eman zuen. Izan ere, giza-hondakinak juxtu-juxtu trenbide zahararen azpian azaldu dira, burdinbidearen bi alboetara. Trenbidea 1864. urtean inauguratu zen, eta 1967. urtera arte egon zen martxan. Trenbidea errepide batekin estali zen, baina beste zulo batzuk ere egin ziren, ur kondukzioak eta gas-hodiak sartzeko. Lan guzti hauek hezurren ondo-ondotik igarotzen ziren, eta kasualitatea da hezurak ikusi ez izana.

Inguru berean Goardia Zibilaren koartel zaharra zegoen, eta mojen komentua ere bai. Gerra zibileko garaiko gertakariaren baten aztarnen ideia ere komentatzen zen hondakinaren zuloa ikustera hurbildutako jende ugariaren artean, baina badirudi azkenean ez dagoela eskandalurako motiborik.

Lanak, oraingoz, geldi daude, eta kasua Diputazioaren historiagileen esku utzi du Bergarako epaileak. Arkeologoen argitu beharko dute, beraz, auzia.

Lanpostu publikoak

Aurten udalak berriki egin duen lanpostu eskaintza publikorako 374 lagunek eman dute izena, guztira 4 lanpostu finko eta aldi baterako beste 7 betetzeko. Administrari laguntzailerako (bi postu, bat finkoa, bestea tenporala), 108 pertsona aurkeztu dira; Amaia Antzokiko atezainetarako (finkoa), 76; prebentzio eta gizarte teknikaritarako, 26, eta hirigintza eta obretako teknikaritarako, 3. Aldi baterako postuetan, udaltzainetarako (bi postu), 33; gazte zerbitzuko informatzailerarako, 40; euskara teknikaritarako, 28; emakumeen berdintasun agentetarako, 20, eta ingurugiro eskolako irakasle izateko, 42. Udaltzainak, Amaia atezaina eta euskara teknikariaren frogak uztailean hasiko dira euskara azterketarekin. Gainerakoak, irailean.

Egunkariaren akzioa

Milioi erdi PTAKo Euskaldunon Egunkariaren akzio bat erosteko eskaera onartu zen Udaltzainaren batzordean, HB eta EAren proposamen batez. Udaltzainaren aurrekontua onartu zenean, aukera hau atzera bota zuten EAJ eta PSOEk, baina orain berriro iritsiko da plenora gaia. Alderdien jarrera aldatzen ez bada, berriro ere atzera botako da udalbatzan.

GORKA
ILEAPAINDEGIA
SOLARIUMA
Ferrerias, 35 ARRASATE
Tfnoa: 77 13 78

ARTOLA
KOMERTZIALA
Zerkaosteta, 3
Tfnoa: 79 14 40
ARRASATE

PUB HAIZEA
arrasate



Asteazkenean, San Fermin egunez, entzierroa izan zuten udalekuetako gaztetxoek, babylekukoek.

Umeak martxa bizian AEDren udalekuetan

AEDren udalekuak martxan daude aurten ere, baina iaiz baino ume gutxiagorekin. Iaz 640 ume apuntatu ziren, baina aurten 500 inguruan geratu da kopurua, akaso matrikulak apur bat garestitu zirelako edo.

Dena den, programa osoak bere hartan jarraitzen du, eta iaizkoarekin konparatuta gauzak gehitu ere egin dira. Adibidez, OHOk 7. eta 8. mailakoentzat 4 eguneko travesia antolatu dute. Astelehenean irtengo dute Albiña, Gatzaga eta Aitzorrotzeruntz, kanpin eta guzti. Zaldiz ibiltzeko aukera ere izango dute umeek.

Lehen txandako 350 umeek datorren ostiralean amaituko dute beren jarduna, festa

handi batekin, Eibarko Astixa taldeak antolatutako udalekuetako umeekin batera. Bigarren txanda uztailaren 19tik 30era izango da. Ondoren, irailean ere udalekutxoak egongo dira. Kasu honetan, ekintzak arratsalderako izango dira soilik, goizez umeek klasea izango dutenez. Batzuentzat oso baliagarri izan daitezke iraileko bi txandak (6tik 17ra edo 6tik 24era), udan galdutako euskara berreskuratzeko, adibidez. Matrikulazio epea, datorren osteguna arte (hilak 15) dago zabalik, eta AEDn egin daiteke. Hori bai, iraileko udalekutxoak ume txikientzat dira, aurrekolako 3. mailakoentzat eta OHOk 1. eta 2.ekoentzat.

Estatu Batuetatik eskariak

Fagor Arrasatek kontratu garrantzitsua sinatu du General Electric (GE) konpainia amerikarrarekin. 450 milioi PTako eskaera egin dio GEk Arrasateko kooperatibari, Alabamako lantegi batean hozkailuentzako atek egiteko lerro bat instalatzeko. Pertsona bakar batek ordenagailu bidez erabili ahal izateko moduko sistema aurrerakoia izango da Fagor Arrasatek jarriko duena. Duela hilabete, beste kontratu bat lortu zuen enpresa berak Estatu Batuetan, kasu hartan 600 milioikoa, Kentuckyn altzairua mozteko sistema bat instalatzeko North American Stainless enpresa garrantzitsuarentzat.

Elkarri-ren afaria


Datorren ostiralerako, hilak 16, afaria antolatu du Arrasateko Elkarri. Era batera edo bestera Elkarri-ekin parte hartu duten guztiak edo interesatuak gonbidatuta daude. Izena emateko, egin dei 794115 telefonora, uztailaren 14a baino lehen.

FAGOR



TALDE INDUSTRIAL KOOPERATIBOIA

GURE ESKUALDE ETA EUSKADIREN ZERBITZUAN
ELKARLANEAN ARITZEN DAKIEN AGERBIDEA



JOSU

**TXOKOLATEGIA
KAFETEGIA**

Elkano, 25 ARRASATE
Tfnoa: 77 03 66

V. O. Version Original

General Alava, 16 - Tfnoa: 13 33 39 - GASTEIZ



Panteoi jabeei kanposantu berrian panteoiak erdi-prezioan erosteko aukera eskaini diete.

Aldaiko panteoiak itxi egin behar direla dio Udalak

Arrasatek kanposantu berria izango du laster San Kristobalen, eta bertako lehen fasea amaitzeaz egonik, aurten kanposantu berria inauguratzen denean, Aldaiko zaharra itxi egingo da. Hala ere, pantoiaren jabe diren familiek eskaera egin diote udalari, abokatu baten bidez, panteoi zaharretan beren familiakoak ehorzten segitu ahal izateko.

Guztira 190 famili-panteoi inguru daude Aldaiko kanposantuan. Urteen buruan, familia desberdinak panteoiak eraikitzen joan ziren, eta gaur egun garai desberdineko dokumentuak dituzte gehienek, batzuk panteoien jabe direla, besteak ez. Udalak egindako

txosten batean azaltzen denez, 127 panteoi baldintzapeko kontzesio baten bitartez daude familien esku, beste 33 kasutan, kontzesioa arrunta da. 10 familiak erosketa aukera daukate panteoiaren gain, eta lauk jabetza dokumentuak dauzkate.

Altamirako kanposantu berrian ere izango dira panteoiak. Eraikitakoak saltzen ari da dagoeneko Udala, 800.000 PTA inguruko prezioan. Aldaiko hilerrri zaharrean panteoia zeukatenei aukera eskaini die udalak panteoi berriak erdi-prezioan erosteko, eta zortzi familiak bide hori aukeratu dute. Gainerako gehienak Aldaiko ehorzketen aldekoak dira.

Baserrietarako ura

Mendiko nekazaritzarako laguntza programaren barruan Arrasaten 8 milioi PTAko inbertsioak egingo ditu Udalak. Hain zuzen ere, sei baserritara ur korrientea eroateko lanak egingo dira: Udalako Arteta, San Andres baserri auzoko Muxibar, Meatzerrekako Etxaldebarri eta Uribarriko Larratxu, Santana eta Eguskitzara.

Azoka plazan irregularitateak

Azoka plazan detektatutako irregularitate batzuk direla eta, txosten bat erredaktatuko du Udalak. Badirudi saltzaileren batzuk, lizentzia produktu jakin batzuetarako izanik lizentzia, bakoak saltzen dituztela.

Fagor Txinan

Txinako makina-erramintetan gehien erabiltzen diren kontrol numerikoko sistemak Fagor Automation-ek egindakoak dira. Txinan egindako azoka baten ikusi denez, Txinako merkaturan %43ko partea hartzen du Fagorrek.



- Umeentzako klaseak
- H.E.O.ko azterketarako prestatzeko klaseak
- Hizkuntzak ikasteko klaseak orokorrean

93-94 IKASTURTERAKO MATRIKULA
IREKITA DAGO !

Hurbil zaitez gure bulegoetara


ARRASATE: Araba Etorb., 4 Tfnoak: 79 01 32 / 79 65 54
OÑATI: Olakua, 14 Tfnoa: 71 60 00



- LORATEGI
- BARATZA
- ZELAI
- BASO GARBIKETA

TRESNERIAKI

Gipuzkoa Etorbidea, 9
ARRASATE
Tfnoa: 79 11 78





San Juanetan komunikabideetan lanean ibili garenok afari eder bat eduki genuen pasaden ostegunean. Alkartu

soziedadean ARKOKo langileak eta jaietan kolaboratzen ibili direnek elkarrekin afaldu genuen.

Al Andalus elkarteak antolatuta, Rozioko erromeria ospatu zen pasaden larunbatean. Aurreko urteetan bezala partehartzaileak eta ikusleak Udalan bildu ziren eta goiz partean herriko kaleetan zehar ikusi genuen "Blanca Paloma".



Renault etxeak kaleratu berri duen "Twingo" kotxeak ostiralean aurkeztu zuen bere burua Mecan.

Ikusle ugari bildu zen. Etxeko bigarren autoa edo gaztearen lehena izateko egina da "monobolumen" a.



Nuria Moreiras arrasatearra Galizia aldean egon da astebete. Xakobeo urtearen barruan antolatu den bidaian joan

da, eta Galiziako dantzak dantzatu ditu bidaian zehar. Bertako jantzi tipikoak jantzita agertzen dira.



PAZI-OLA SA
GALDARAGINTZAKO LANTEGIA

Zaldispe kalea, 2
ARRASATE Tfnoa 79 29 94



Umeentzako moda

Ferrerias Kalea, 34
ARRASATE
Tfnoa: 79 97 86



Esaera zaharrak, "berritu edo hil" esaten du; ARRASATE PResSEN ere gauza bera egin dugu oraingoan, ordenagailu eta erredakzioko tresneria dena berritu dugu eta: pantaila handiagoa, aginduak azkarrago betetzen dituen eta gainera koloretan. 200. alea baino lehen iritsi da aldaketa.

Rosa Ruiz del Vallek pasa den astean eman zituen azken klaseak. Abuztuan jubilatuta eta hurrengo hilabetetan oporrak hartzeko asmoa duela komentatu digu. Urte askoan San Antolin eta ondoren, Musakolako eskolan eman ditu klaseak.




IZEN PROPIOAK

● **Pasa den ekainaren 26an** Usurbilen burututako judo lehiaketan **Jon Atxa**, 12 urte, arrasatearra lehen postuan geratu zen eta **Itziar Zabalak**, 12 urte, bigarrena lortu zuen.

● **Pablo Mongelos**, 28 urte, orain arte Export-manager izandakoa, Fagor Elektragailuetako Lerro Zuriko exportazioko zuzendari komertzial izendatu dute.

● **Beatriz Arzamendi**, 31 urte, orkestrako zuzendari titulua lortu du. Madrileko konserbatorioan egin ditu ikasketak eta Juanito Arzamendi, Arrasate Musikaleko zuzendaria ohiaren alaba da.



Betebeharrak:

¥ Zientzietan lizentziatua
 ¥ IEEren (REM) eskola ematen aritua
 ¥ EGA
 ¥ EITE

S. F. X. Ikastolak IRAKASLE BAT BEHAR DU


Ertainetan eskola emateko

(Behin behineko kontratua)

Izen emateko epea: uztailaren 16an.

Curriculuma bidali: Arrasateko 114 postakutxara edo faxez bidali 77 08 66 zenbakira.

Aukeraketa: Irailean.



OKIENDO
KIROOLAK

*Ezagutu
Udaberri-Udako
moda!!*

Maalako Arrabala, 13. Tfnoa: 79 92 76 ARRASATE



● *Ruben Algarra*

“El Caliz” kuranderoa

60 urteko gizon hau, Valentziarra izan arren, jende askok ezagutzen du Arrasate eta inguruetan. Ez daramatza alperrik 18 urte urtero hona etortzen. Orduetik, konta ezin ahala gaixo sendatu ditu bere esanetan, eta asko dira Erguineko bere kontsultara hurbiltzen diren gaixoak. Datorren astean alde egingo du, hurrengo urtera arte.

—Nondik nora Arrasatera?

—Orain hogeit bat urte erreportai baten irten nuen eta inguru honetatik jendea etortzen hasi zen Valentziara. Bezeroek esaten zidaten hona etorri gero izango zirela bezeroak eta horrela etorri nintzen, eta orduetik, urtero. Oso harrera ona egin didate mondragoetarrek, eta asko gustatzen zait hemengo jendea.

—Zertan oinarritzen da zure sendabidea?

—Energiak eta telepatia. Pertsonak aurrez aurre, argazki bidez eta telepatiaz sendatzen ditut, mina kendu, koskorak kendu, sendatu egiten ditut, gaixoarekin berarekin edo hurbileko pertsona batekin hitz eginda lortzen dut hori. Nik ez dut ikasketarik, baina dakitenek hori telepatia


dela esaten didate. Sendabiderako ura erabiltzen dut, baina urak berak ez du sendatzen, ontzia da telepatia eta energia jasotzen dituen, eta ur horretan doan telepatiak nire buruak ikusi dituen puntuak ikutzen ditu. Ura guztiz gastatu aurretik bete behar da berriz botila, baina ontzia sekula aldatu barik, hor egoten baita “ama”, legamian edo ardoan bezala.

—Ze gaixotasun sendatzen dituzu?

—Kurandero izateaz gain, bidentea ere banaiz, eta gorputzeko gaixotasun guztiak senda ditzaket, hausturak izan ezik. Hezurren hausturetan, hezurra bere lekuan jartzen dut. Horretaz gain, minak, ultzerak, diabetea, koskorak, ilearen galera, harriak, zirkulazio txarra, almorranak...

—Nondik datorkizu dohai hori?

—Hamaika urterekin konaturatu nintzen. Aurrez ahotsak entzuten nituen, gauzak sentitu, baina beldurra zela esaten zidan amak. 11 urterekin tripetako min handia hasi zitzaidan eta etzan eskuak sa-belean jartzea bururatu zitzaidan. Minak alde egin zuen. Orduetik hasi zitzaizkidan dohaia izango nuela esanez, eta



jendeari eskua jartzen hasi nintzen sendatzeko. Apurka apurka ikutu barik sendatzen nuen, lagunak eta familiakoak eta horrela trebatzen joan nintzen. Hori dohaiaz gain, jakitea da, irakurtzen jakin arren ere, estudiatu egin behar da, eta nik horixe egin dut.

Jende guztiak sendatu ahal izateko, seinalea eskatu nuen eta munduaren irudia eta eguzkiaren irteera atera zitzaizkidan. Gero kaliza, guturtea eta ura ikusi nituen.

—Fedea ere beharko da, bada...

—Ez, fedearekin eta fede barik berdin sendatzen da. Izan ditut kasuak, gaixoak ezer jakin barik ura edan eta sendatu direnak ere. Gauza bera gertatzen da ume txiki-ekin ere, eta horiek ez dute federik. Sendatu berdin sen-

datzen dira, baina batak aitortu egiten du kuranderoa izan dela eta besteak ez. Gainera, edozein sendagaik, ondo zuzenduta bada, sendatu egiten du, baina gauza bat dela esan eta jatorria beste bat bada, orduan gaixoa ez da sendatzen, mina gauza bat da eta gaixotasuna beste bat, eta nik biak tratatzen ditut. Gaixotasunaren zergatia aurkitu behar da, nondik datorren.

—Zer esango zenioke horrelakoetan sinisten ez duen jendeari?

—Nik ez dut istilu handirik izan horretan. Batzuk esan izan didate ez dutela sinisten, baina pertsona egiazkoa bada, aitortu egiten du egia. Sinisten ez duenari nik esaten diot ‘nik esan dizut zer duzun; orain esaidazu zuk nik zer duzun. Zuk zer duzun esateko gai banaiz, eta zu nik zer duzun esateko gai ez bazara, badut nik zuk ez duzun zerbait’ eta isildu egiten dira. Baina gauzak demostratu egin behar dira, eta gero medikuarengana joan eta gaitza desgertu egin dela ohartzen dira.

● **“Mina gauza bat da eta gaixotasuna beste bat, eta nik biak tratatzen ditut”**

Kooperatiben IV. Kongresua Etorkizunera moldatu beharra

Luis Fernandez

Datorren ostegun eta ostiralean, hilaren 15 eta 16an, Kooperatiben IV. Kongresua izango da Arrasaten. Mondragon taldeak, orain Mondragon Korporazio Kooperatibo izenez (MCC), hurrengo urteetarako politika ekonomikoa zehaztuko du. Krisi giro orokorrak markatutako politika.

III. Kongresuan, taldea MCC korporazioan transformatzea erabaki zen, eta aurrerantzean Kongresuak urtero egitea ere bai. IV. erako, dena den, urte t'ardi igaro da, Korporazioa asentatzen den bitartean. Hiru txosten nagusi tratatuko dira Kongresu honetan: Kongresu iraunkorerrako ordezkarien hautaketa arauaren aldaketa; infrakzioen arauaketa, eta 1996. a arteko enpresa-politikaren zehaztapena.

Enpresa-politika horretan, kooperatiben munduan banaketa arloak duen garrantzia gero eta nabarmenago ikusiko da. Banaketa arloak (janari industria eta supermerkatuak), salmenten %70 hartuko du hiru urte barru, aurrirakuspenen arabera. Flotaren untzi nagusia Eroski da, bistan dagoenez.

Janari arloan kooperatiba baten, Auzolagunen, ardura duen Mari Carmen Yarrituraren iritziz, egia da "arlo industrialia une txarra ari dela igarotzen, baina duda barik, piztu egingo da berriro, horretarako neurriak hartzen ari dira dagoeneko". Aldi berean, bere iritziz, industriarekin gonbaratuz, banaketa ar-

loan espansio momentua bizi da eta "ezin da aukera hori alferrik galdu".

Industri arloak bere defentsa mekanismoak badauzkala uste du Jesus Mari Herrastik, Kongresu iraunkorrek lehendakariak. Bere iritziz, "arlo bakoitzak, une bakoitzean bere zirkunstantzia ekonomiko propioak bizi

ditu, batzuetan onak eta beste batzuetan ez. Horregatik esistitzen dira solidaritate mekanismoak, emaitzen errekonbertsioa eta Fondo Zentrala bezalakoak, eta horiek errekurtsioak trasladatzen dituzte arlo batetik beste batzuetara, laguntzeko". Kooperatibisten Taldeko (KT) Mila Larrañagari normala iruditzen zaio, indartsu dauden arloak bultzatzea, baina bere ustez, MCCren ikuspuntu berriekin, "itxi egingo dituzte errentagarriak ez diren kooperatiba txikiak, edozein holding-ek egiten duen bezala".


ARRIORTUAREN EREDUA

96rako plangintzen artean, I + D (ikerketa eta garapena) programen garrantzia mantenduko da, baina proiektuak soilik arlo industrialean kokatu barik, beste arloetara gehiago zabaldua. "Ingurugiroarekiko ardura ere integratuko dugu gure enpresa-politikan, Korporazioaren kezka funtsezkoenetako bat bezala", aipatzen du Jesus Maiztegiak, industria dibisioko MCCko lehendakariordeak. Aurrikuspenei dagokienez, hedatzen segitzea espero dute kooperatibek: gaurko 25.000 langileetatik, 96an 33.000 izan arte.

Etorkizunerako prestatzeko, gestio ereduak berriro beharra aipatu izan du behin baino gehiagotan Javier Mongolosek, MCCko Kontseilu



Banaketa arloa, supermerkatuena, da gehien garatuko dena 96a arte.



Duela urte 1/2 hartu zuen kooperatiben taldeak, MCC Korporazioaren edo "holding"aren egitura.

JOSEBA

Nagusiko lehendakariak. Ekaineko prentsaurreko batean, Jose Ignacio Lopez de Arriortuaren ereduak gorai-patu zituen bereziki, eta hortaz, datorren asteko IV. Kongresuan, erabakiak Arriortuak planteatutakoaren bidetik joango direla esan zuen.

Arriortuaren ideiek bi oinarri dituzte, esplikatzeko digu Jesus Mari Herrastik: "Bate-tik, kalitate eta produktibitate mailak azkar igotzeko beharra eta aukera, hobekuntza progresio gero eta bizkorra-goan; eta bestetik, hobekuntza horiek langilearen partaidetzaz lortzen dira, langilea negoziaren parte garrantzitsutzat harturik". Zentzu honetan, kooperatibistak eredu horiekin oso konpatibleak direla uste du Herrastik, sozio-langileak direnez jabeak. "Argi dago, gure negoziaren hobekuntza eta aurrerakuntza gure onerako eta bezeroen onerako dela", dio Herrastik.

Mila Larrañagaren ustez, Arriortuaren sistemak dagoe-

neko martxan daude kooperatibetan, toyotismoa, ajusteko produkzioa eta abar. "Lanaren humanizazioa barregarria da, gezurra da gauregun", dio KTkoak, baina alternatiba eza aipatzen du, Europako korranteetan ibili beharra.

BOKAZIO SOZIALA

Krisi garai honetan, erronka nagusietako bat orain arte egindako tinko finantzaz datza. "Konturatu behar dugu", dio Herrastik, "gaur daukagun konpromezu sozial handiena gure enpresak bideragarri bihurtzea dela, sozioentzat eta etorkizunean geurera etor daitezkeenentzat lan aukerak eskaintzeko. Honen epe laburrean, errenuntzia ekonomikoak eskatzen ditu".

Auzolaguneko Mari Carmen Yarritu iritzi beretsukoa da. "Oraingo helburua gure kooperatiben jarraitasuna finkatzea da, eta horretarako hartzen diren bide eta ereduak oso hurbil dagoen iraganare-

kin topo egiten dute". Garai berrietara moldatzeak, beste sasoi bateko ikusmolde batzuk aldarazi ditu, Yarrituaren ustez: "Esango nuke jada ez dela lehen bezala". KTko Larrañagak oso iritzi kritikoa du: "Bokazio soziala minbizi terminalean dago". Horren adierazgarri da Eusko Jaurlaritzak, "MCCren gusturako", atera duen kooperatiben legea: lege horren argitan, kanpoko kapitalen sarrerak, sozio-langileen erabakitze gaitasun eskasak eta beste puntu "atzerakoi" batzuek, "langileen indefentsioa dute ondorio", dio Larrañagak. Kongresuan bertan ere, langileek duten ordezkari-tza eskasa aipagarri du sindikalistak. 320 ordezkari-rik, langileak %2 inguru izango kalkulatu du Larrañagak. Baina Jesus Mari Herrastiren iritzi-z, kooperatibismoaren balioek —"Partaidetza, eskubide demokratikoak, elkartasuna"— indartsu dira, eta "praktikan erakusten da hori".

Bokazio sozialak bere hartan dirau, Herrastiren ustez, baina KTkoen ikuspuntutik, "minbizi terminalean dago"

Arrasatek laster izango du gerriko beltzeko lehen judoka

Judoa borroka kirola da, eta hala ere, aurkaria tratatzeko eragatik, eta kirolaren filosofia eta zeremoniagatik, dagoen praktika gomendagarrienetakoa da kirol arloan hasi nahi duten umeentzat. Jatorri japoniarreko kirol hau bultzatzen, zortzi urte daramatza lanean Arrasaten Julio Gallego entrenatzaleak, eta dagoeneko emaitza garrantzitsua ematen ari da bere eskola: gaztetxoak oso postu onak ari dira lortzen txapelketetan, eta laster *gerriko beltz* berria ere izango dugu Arrasaten, herriko lehenbizikoa: Gaizka Aranegi, 17 urteko gaztea.



55 neska-mutil entrenatzen dira kiroldegian, erdi borrokan, erdi jolasean.

Aranegirekin batera, 55 pertsona dabilten entrenatzen kiroldegian Julio Gallegorekin. 4-5 urteko neska mutikoak dira gazteenak, baina edozein adinekin praktika liteke: Victor Gonzalez Atxa arrasatearra 23 urterekin hasi zen judoka, eta gerriko marroia eskuratu zuen (beltzaren aurrekoa). Horitik hasita, beltzeraino koloreka desberdintzen dira maila eta gerrikoak. Beltza lortzekotan dago orain Gaizka Aranegi. Gipuzkoako 2. eta Euskadiko 1. izan da azken txapelketetan eta Espainiako urriko txapelketa da hurrengo helburua. Ondoren, bere mailako bost

judokari irabazi eta etsamina teorikoa gainditu ondoren, gerriko beltza lortuko du Aranegik. Horren ostean, *dan* dirrelakoetan neurtzen dira mailak.

Gallego entrenatzaileak judoaren onurak deskribatzen dizkigu: "Lesio gutxien kirola da hau, jaustea da umeek


ikasten duten lehen gauza, eta malgutasuna eta elastizitatea lantzen dute, ez horrenbeste potentzia, eta hori ona da, ez duelako umeen desarroiloa galeratzen". Honen ondorioz, judoa oso kirol gomendagarria dela dio Gallegok, izan ere, judo egin duen edozein has daiteke 18 urterekin fut-

bolean edo saskibaloian, baina halako kirol batean ibili dena txikitatik lotuago dago bere diziplinara.

55 judoka gazteen artean, hamar bat neskato daude. Duela 10 bat urte, ez zegoen ia neskarik judo munduan, baina orain ederto moldatzen dira. "Euskal neska hauek nahiko gogorrek dira", dio Gallegok. Horren froga, Arrasateko Itziar Zabalak Sanjuanetan Usurbilen frogata batean lortutako 2. postua, mutilen aurka borrokan! Frogaberean, gainera, taldeko Jon Atxa arrasatearra 1. postua eskuratu zuen.

.....
"Lesio gutxien duen kirola da hau, jaustea da umeek ikasten duten lehen gauza, eta umeen desarroilorako ere ona da"

JULIO GALLEGO ENTRENATZAILEA



Paz Manceras
Bitxitegia

Iturriotz, 7 bis. Tfnoa: 77 12 71 ARRASATE

PENALTIAK

Kirolari federatuak AUKEAko abonatu bihurtuko dira

● 24 orduko futbito txapelketa antolatu dute Uribarri auzoan bertako san Bartolome jaietarako. uztailaren 17ko 12etatik biharamuneko eguerdira arte luzatuko da futbito maratoi hau, eta ahal den partehartzaile gehienak nahi dituzte antolatzaileek. Branka kafetegian da izen-ematea, uztailaren 15a baino lehenago.

Aukeak (Arrasateko Udaleko Kirol Erakunde Autonomoak) gestionatzen dituen herriko kirol instalazioak erabiltzeagatik orain arte ordaindu beharrik ez zuten kirolari federatuei abonatuaren tarifak ezarriko dizkie. Aukeako parte diren herriko kirol taldeek ez dute ezer ordaintzen instalazioak erabiltzearen truke, eta horrez gain, talde horietan dauden kirolari federatuek sarrera librea daukate kiroldegietara, abonatuta egon beharrik gabe.

Aukearen aurrekontu handian, 148 milioi pezeta aurreten, parte handiena udalak jartzen du, 91 milioi, eta autofinantzazio maila behera doa: 1987an %75,8koa zen, 1990ean %47koa eta iaz %39,7koa. Gero eta kirolari



Sarrera librea izan dute orain arte federatuek.

federatu gutxiago abonatzen dela ikusi da, gainera, erosoagoa zaienez instalazioetan zuzenean sartzea. Neurri berria onetsi egin du dagoeneko Udalak, eta Aukeako zuzendaritzan ere aurrera joko du laster. Dagoeneko, inguruko herri gehienetan antzerako neurriak martxan daude.

Kirol taldeen aldetik, ideiak ez du oso harrera ona izan, pentsatzekoa den bezala. Duela gutxi, bestalde, kirol taldeek Aukeako zuzendaritzan ordezkari bat gehiago izatea eskatu zuten, hiru beharrean lau, baina udal gobernu batzordeak atzera bota zuen proposamena.



- Etxerako arrisku-anitza
- Dendetarako arrisku-anitza
- Komunitateetara arrisku-anitza
- Industriadarako arrisku-anitza
- Automobilak
- Gidatzeko baimena kentzea
- Bidaiako asistentzia
- Istripuak
- Bizitza
- Jubilazio EPSU
- Subsidioak, gaisotasuna, istripuak
- Osasuna



MIKEL LASA, S.A.
aseguru artekaritza

Maalako Errabala, 33 Etxabea. Tfnoa: 79 69 00 / 79 69 43. Fax: 77 10 74 ARRASATE

Jan-neurria (I)

Jan-neurri orekatu bat nola defini dezakegu? Umeen hazkunderako beharrezkoak diren osagai guztiak edota pertsona helduetan osasuna mantentzeko behar direnak dauzkana izango litzateke jan-neurri orekatua. Beraz, horrelako jan-neurri batek karbohidratoak (azukreak), proteinak, gantzak (koipeak), bitaminak eta zenbait elementu kimiko (burdina eta kaltzioa adibidez) eduki behar litzuzke.

Zenbait eritasunetan jan-neurri bereziak behar dira. Diabetean adibidez, azukre eta karbohidratoen kontsu-

moa gutxitu beharra dago. Giltzurrun-intsufizientzian proteinak eta potasioa dira murriztu beharrekoak. Gibelko gutxiegitasunean ere sarritan gutxitu behar dira proteinak.

Pisua jaisteko modurik egokiena egunero kaloria gutxiago ahoratzea izaten da. Nola ulertzen da hori? Gortputza makina bezalakoa da, bere eguneroko jardunean aurrera egiteko erregaiak behar dituena. Balantze hone-tan, janariaren bidez ahoratzen ditugun kaloriak gortputzak bere eguneroko lanean erretzen dituenak baino gehiago



direnean, soberan edo erre-gabe geratu diren kaloria horiek pilatu egiten dira. Horregatik, argaltzeko erabiltzen

diren jan-neurri guztien funtsa horixe da, kalorien kopurua gutxitzea.

Argi ikusten da, pertsonaren ezaugarrien eta bere lanbidearen arabera ez dela beti berdina izango egunero beharrezkoak diren kalorien kopurua. Ondoren pertsona helduen eta umeen batezbesteko beharrezkoak adierazten dira bi taulatan

(Jarraituko du)

KARMELO ETXEBARRIA
(MEDIKUA)

Adina	Lanbidea	Gizonezkoak	Emakumezkoak
20-40	Sedentarioa	2.500-2.800 kal	2.000-2.200 kal
20-40	Esfortzu fisiko handikoa	3.500-3.800 kal	2.400-2.600 kal
40-60	Sedentarioa	2.400-2.600 kal	2.000-2.200 kal
40-60	Esfortzu fisiko handikoa	3.500-3.800 kal	2.400-2.600 kal
60-80	Kasu guztietan	2.100-2.500 kal	1.800-2.100 kal

TAILERAK

Tfnoak: 78 19 50 / 78 25 92 OÑATI

- HERGO eta HOBBY karabanak.
- RIVIERA auto-karabanak.
- SANGO erremolkeak.
- Kanping eta karabana guztientzako ordezeko piezak eta osagarriak.

IRAKASLE ESKOLA
E s k o r i a t z a
G i p u z k o a

Magisterio Eskola honek zera jakinarazten du:

1993-94 ikasturterako aurreinskripzio-epaia zabalik dagoela.

Espezialitateak:

- Haur-Eskola
- Euskal Filologia
- Ingeles Filologia

Informazioa
Irakasle Eskola. Tfnoa: (943) 71 41 57

Mondeo



M MUGARRI

MANGO

Postas, 5 eta 5 bis GASTEIZ

Tfnoa:(945) 23 04 48

Santa Barbara zuhaiztia

Gaur egun Santa Barbara parke bezala ezagutzen dugu, eta aurreko asteetan eman ditugu leku horren jatorriari buruzko erreferentzia batzuk, Santa Barbara izena zeraman ermitaren gorabeherak tartean zirela.

Gauza bera gertatzen da Goikobalu izenarekin ere, izan ere gaur egun abesbatza- ren izena den hori, Santa Barbara gainekaldean dagoen leku baten izena baino ez da, jakinekoa denez. Leku horretan, Letonak esaten duenez, harrizko jarleku bat eraiki arazi zuen mediku batek bere diruz, eta horren lekukotza jasotzen du historialari mon- dragoetarrak. Hain justu ere, Goikobalura doan bidearen ertzean, Zarugaldera begira, ermita egon zen lekuaren az-



pikaldean. "Mediku bankua" esaten zitzaien.

Goikobaluko zelaiaren gainekoaldean zegoen izaia ederra Carlos Adan de Yarzak ekarri arazi ei zuen Lekeitiotik eta 1854an landatu zen.

1854ean birlandatzea egin

zen parke guztian zuhaitzak sartuz, eta lehorte garaietan, Goikoetxeko jaunek Gazte- luondoko neska-mutiko guz- tiak Zarugaldeko errekatik, Mojostetik, ur-karri- oian jar- tzen zituzten landareak urez- tatzeko. Propina ere izaten ei- zuten lan horren truke. Goian

aipatu dugun izaia zaharra 1941ko otsailean izandako haizete handi batek bota zuen.

Santa Barbarako parke- aren azken birlandaketa eta lorategiak jartzea, orain hu- rrengo egin denaren aurrekoa, jakina, 1953an egin zen Ra- fael Herizen agindupean.

AE ELKORO

OBRENGATIK LIKIDAZIOA GURE PRODUKTUETAN!!!

Pletina bikoitzeko
SAMSUNG irrati
kassete estereoa

5.900

Sonitrom
14" telebista

19.900

Colmatic (FAGOR)
labadora

32.900

Bizarra
mozteko makina

4.900

Ilea
lehortzekoa

5.900

SAMSUNG
mikrouhina

5.900

Olarte, 1 ARRASATE

... ETA BESTE ASKO!!!



San Viator, 1968-69 ikasturtean.

San Viator Ikastetxean ikasketak egiten ari ziren mutiko taldeari 1968-69 ikasturtean ateratako erretratua da hau. Garai hartan denak mutilak izaten ziren San Viatorren eta kurto so guztietan gelaka ateratzen zien irakasleren batek argazkia, Santa Barbarara joanda.

Goiko ilaratik hasita, **Iñaki Balanzategi, Jabi Etxagibel, Serrano, Raul**

Kortabarria, Josu Uribe-salgo, Carracedo eta Luis Rodriguez.

Behean, **Balentin Carrillo, Narro, Xanti Beitia, Bittor Murguzur, Alberto Bergaretxe, ezezaguna, Viguri, Salazar eta Jabi Zubiaga.**

3. iladan **Valgañon, Rodriguez, Eugenio Etxebarria, Justo Velasco, Juan Miguel Casado, Jabier Vallina, Xalba Azkoaga eta Roman**

Balanzategi.

Ondora **Enrike Mazmela, Zubizarreta, Urribarren, Iñaki Ormaetxea, Roberto Azkarate, Rafael Kortabarria, Aitor Orobengoa, Mikel Orobengoa eta Mendikute.**

Patxi Ugarte, Bittor Salaberri, Joseba Zubizarreta, Jose Luis Bermejo, Jabi del Campo, Jon Arsuaga, Sarasola eta Ramon Zabaleta.

Garagartza auzoa
Tfnoa: 79 76 58
ARRASATE

UGARAN
jatetxea

Arreta handiko
sukaldea
Giro abegikorra

ZURE IRAGARKIAK DEBALDE HEMEN! Idatz ezazu Azoka kaleko, 1era edo dei egin 77 05 65 ☎

Etxebizitzak

- Etxebizitza salgai edo alokairuan. 90 m² despatxua jartzeko oso aproposa. Tfnoa: 79 64 50.
- Salouko Pinedan apartamentua alokatzen da. Tfnoa: 79 45 74.
- La Bastidan duplexa salgai. Tfnoa: 79 65 39.
- Etxebizitza alokatzen da Donostian, uztaila, abuztua eta baita ikasleentzat ikasturtean zehar ere. Tfnoak: 71 50 87 eta 71 4002.
- Eskoriatzan etxebizitza amueblatua alokatzen dut. Tfnoa: 79 87 26.
- Garaje plaza bat alokatzen dut. Tfnoa: 79 79 12.

Lana

- OHoko klase partikularrak ematen dira uztailean. Esperientziaduna naiz. Tfnoa: 79 60 16. Henar.
- Ingeleseko eta frantsesezko klase partikularrak ematen dira uztailean. Tfnoa: 79 47 90.
- Etxeko lanak egin eta umeak zaintzeko neska behar da. Kotxea beharrezkoa da. Tfnoa: 79 27 02.
- Kontabilitateko klase partikularrak hartuko nituzke uztailean. Tfnoa: 79 99 82. Maite.

- Uztailean OHoko klase partikularrak emango nituzke. Tfnoa: 79 69 41. Arantxa.
- Uztailean OHoko klase partikularrak ematen dira. Tfnoa: 79 05 59. Oskar.
- Ekonometriako klase partikularrak ematen dira uztailean. Tfnoa: 79 40 87. Miren.
- Marrazketa teknikoko klase partikularrak ematen dira. Tfnoa: 79 65 84. Leire.
- Neska esperientziadunak umeak zainduko lituzke. Tfnoa: 79 13 66. Arantxa.
- Lizentziatu esperientziadunak ingeleseko klase partikularrak emango lituzke uztailean. Tfnoa: 79 26 21. Ane.

- Uztailean ingelesezko klase partikularrak ematen dira. Dei egin goizetan 77 05 77 tfnora.
- Ingeleseko filologoak logikako klaseak hartuko lituzke uztailean. Tfnoa: 79 35 36. (Maite).
- O.H.O., Batxiler eta ingelesezko klase partikularrak ematen dira uztailean. Tfnoa: 79 04 76.
- Etxeko lanak egiteko neska behar da. Deitu gaueko 8etatik 10etara. Tfnoa: 77 07 33.

Salerosketak

- Transformaturako Vanette furgoneta salgai. Ohea, sukaldea, izozkailua, mahai, iturria etb. ditu. Tfnoa: 79 28 81.

- Zeus markako bizikleta salgai. 58. tailakoa. Oso egoera onean dago. Tfnoa: 79 94 71.
- Renault Fuego GTX SS-T salgai. Dei egin dena orduetan 79 73 90 tfnora.
- Ezkontzeko soinekoa salgai, buruko apaingarri eta kankanarekin. Luzea, salmoi kolorekoa, manga motzaz. Neurriak: luzeera 165 zm. bularra 85 zm eta gerria 68 zm. Prezioa: 80.000 PTA. Probatzeko, dei egin 76 17 81 edo (945) 24 32 55 tfnora.
- Fagor markako sukalde berria salgai. Bi su eta bi elektriko dauzka. Gas naturalekin erabiltzeko. Oso prezio interesgarria. Tfnoa: 79 38 16. Gaueko 9etatik aurrera.
- Ziklomotorra eta korredore bizikleta salgai. la erabili gabeak. Prezio onean. Tfnoa: 78 10 41.
- Citroën AX, GT hobekuntza askorekin salgai. SS-AH. Tfnoa: 78 33 09.

- Hiru berogailu, hiru negua pasatzeko epelean nik saltzen ditut modu onean!
- Kerosenozko berogailu bat "Corona FH 5540 S Big-Inventer" markakoa.
- Butanozko bat "Delonghi" markakoa.
- Eta elektriko bat "Delonghi Caldovelto" markakoa. Behar izanez gero, jo 78 05 72 tfnora. eta egingo xuagu/xonagu tratua.
- Paseoko bi bizikleta salgai. Egoera onean eta merke. Deitu 79 71 59 tfnora. Iñaki.
- Kotxea salgai: urrian erositako Renault Clio bat. Garantian dago. Tfnoa: 79 13 88 (Lorea)

Aste Gazte

Besaide Gazte Ekin-tzak

- Uztaileak 17: Mendiko bizikletan irteera. (ez da ize-nik eman behar)
- Pirineotan zehar aste-beteko ibilbidea. Uztailearen 19tik 23ra. bilera: ekainak 10, 8etan, Besaiden.

Oporraldiak

- Diputazioak antolatutako egitaraua: plaza batzuk geratzen dira, bai 14-17 urte bitartekoentzat eta baita 18-29 urtekoentzat ere. Ekintza

mota ezberdinak: mendi bizikleta, kanoi jeitsierak, kayac, piraguismoa, eskalada, parapentea, ... Interesatuak lehenbaitlehen eman behar dute izena.

Auzolandegiak

- Huescako Ibori herria 86 urtetik berreraikitzen ari da, auzolandegietan esku hartzen duten gazteei esker. Uztaile eta abuztuan joateko aukera dago. Goizez lan eta arratsaldean astialdi ekin-tzak. Egutero 700 PTA bai-

no ez da ordaindu behar.

Bekak

- Euskadiko beka deialdia biltzen duen "Zehazki Mehazki" liburuaren hainbat ale ditugu bulegoan. Kontsultatu nahi izanez gero, egun batetik bestera etxera eraman dezakezue.

Gasteizko XVII. jazi jaialdia

- Uztailearen 13tik 17ra. Sail bereziak: XXI. mendeko jazz eta gauerdiko jazz.

"Zer da pertsona heldua? Adinak ximeldutako umea"


SIMONE DE BEAUVOIR
"LA FEMME ROMPUE"



Informazio gehiago:
GAZTE ZERBITZUA
Tfnoa: 77 00 65

ZER NAHIAGO?

Mikel Uribetxebarria Sokorrista



- **Zer behar da sokorrista izateko?** Ikastaro be-rezi bat egin behar da, besterik ez.
- **Gustatzen zaizu zure lana?** Bai, nahiko atsegina da.
- **Uda honetan lagundu diozu norbaiti uretatik irteten?** Ez, oraindik ez.
- **Zenbat urtetan izan zara sokorrista?** Aurten-goia da lehen urtea.
- **Zaila da igeri egiten ikastea?** Hasieran behar-bada bai, baina ohitu arte izaten da zaila.
- **Zenbat jende etortzen da egunean?** Eguraldia-ren arabera, ona dagoenean asko, txarrarekin 5 edo 6.
- **Eguzkia hartzea gustatzen?** Beno, bai.
- **Zer hartu behar da kontutan uretan sartu baino lehen?** Zenbat jan duzun eta beharrezkoa da sartu aurretik dutzatzea.
- **Zenbat urterekin ikasi zenuen igerian?** Ez naiz asko gogoratzen, 8 urte nituenean edo.
- **Jende asko sartzen da uretan buruko gorrerik gabe?** Kanpoko igerilekuan ez da beharrezkoa, barruan bakarrik.
- **Nortzuk errespetatzen dituzte gutxien arauak?** Seguruena umeak izango dira.
- **Noiz bainatzen zarete sokorristok?** Jendea joaten denean.
- **Piszipina ala hondartza?** Hondartza gehiago gustatzen zait.
- **Udako kirol bat?** Wind Surfing-a.
- **Tabarra asko ematen dizute umeek?** Beno, bai, gainera beti ume berberak izaten dira.
- **Zer ordutan egoten da jende gehien igerilekuan?** Arratsaldero 4ak aldera.
- **Asko ligatzen duzue sokorristok?** Ez dakit, hori esaten dute, behintzat.
- **Neguan zer egiten duzu?** Elektronika ikasi Eskolan.

BERTSOAK

Euskal Herriko auzo baten ibai garbiari begira

Ibai garbia zuaitzak jiran albuana esarlekuak ur garbi ortan jolasten dabiltz lubiñak ta eskailluak aren ondoren janari billa amorrai eta barguak eta sudurra garbitutzen du bertako usai gozuak

Oroitutzean herriko ibaia len era ontan genduna trakes samarra izanagatik jartzen du biotz biguna buru makurka aitortu behar dela pekatu astuna geu erosuo bizitzegatik gizonok egin deguna

Gure errian ustel usaia darama ibaiak arrai au ikusita ezin gindezke iñolare bizi lasai neu're errudun sentitzen naiz'da inor mintzerik ez det nai baña garbua zaintzen dutenak biotzez zoriondu bai

AGARRE



Parques Y Jardines

Parke eta lorategien sorkuntza.

Larazaintzako mantenimendua ora har.

Landare-birsorkuntza hidroereintzaz.



Casa-Torre kalea. Tfnoa: (94) 681 90 82 ABADIÑO (Bizkaia)

Fatima Errasti

Bidai erakusketa Monterronen

Urtean zehar gai konkretu bati buruzko erakusketak zabaldu izan dira Monterronko liburutegian. Irakurtzea bidaiatzeko beste modu bat izan daitekeelako, uztaillean zehar bidai erakusketa dago zabalik.

— Zergatik antolatu duzue bidai erakusketa hau?

— Egia esan, ez da gai konkretu bati buruz egiten dugun lehen erakusketa. Aurten adibidez, HIESa, emakumea, Euskal artea, ingurugiro arazoa eta beste gai batzuri buruzko erakusketak egin ditugu. Bidai erakusketa konkretuki bidai aldizkarietatik egin dugun dossiera aprobetxatuz montatu dugu. Guk landutako dossier horrekin batera, beste liburu batzuk ere erakustea izan da helburua. Maila honetan bi mahai desberdin jarri ditugu, batean literatura liburuekin eta bestea aldizkarietako artikulu, bidai agentzietako liburu eta beste liburu batzuk.

— Zein da bidai erakusketaren helburua?

— Beno, udara begira irakurtzea bidaiatzeko modu berri bat izan daiteke. Bidaiatzeaz gain, liburu konkretu batzuk irakurritz, herrialde desberdinak ezagutzeko aukera ematen



dute eta horixe da gure helburua, udarako liburuak kontutan hartuz, irakurtzeko zaletasuna bultzatzea. Horretarako, literaturako liburuen mahaian liburu batzuk gomendatzen ditugu eta bigarren mahaian, kanpora doan jendeari zuzenduta, bertara iritsi baino lehen ezagutu dituzan nortzuk diren herri horretako ohiturak, klima,

gizartea... Euskal Herriko herri desberdinei buruzko informazioa aurki daiteke eta baita hemendik kanpo Espainia eta atzerriko herri desberdinetakoa ere.

— Nolako harrera izan du orain arte erakusketak?

— Nahiko ona. Normalean, liburutegira hurbiltzen direnek kuriositatez bidai erakusketari begiradaxoa ematen diote. Adin guztietako jendea hurbildu da orain arte erakusketa honetara: ikasleak, aldizkari bereziak edo konkretuak irakurtzen datozen gizonak, azterketa konkretu bat prestatzeko liburutegiko liburuak erabiltzen dituztenak... Hala ere, kaleko jendea erakusketa eta liburutegia ezagutzera animatuko nuke. Erakusketa hau, liburutegia herri osoan interesatu guztiei zabalteko beste bide bat izan daiteke: liburutegia erakargarriago egiten delako, nolabait.

— Urtero errepikatuko duzue erakusketa hau?

— Bai, gure asmoa horixe da. Landu dugun dossiera osatzea eta urtero kaleratzen den informazioa biltzea da gure helburua. Lan zaila da, baina guzti horrek beste urte batzutan erakusketa konpletuagoa montatzen lagunduko digu.

Uztailako pintura erakusketak

Uztaillean zehar hiru erakusketa egongo dira zabalik Harresi Aretoan eta Monterronen. Monterronen, esate baterako, zabalik daude bi erakusketa. Liburutegian, bidai erakusketa dago zabalik: artikuluak, aldizkariak, argazkiak... eta erakusketa aretoan urtean zehar pintura ikastaroan parte hartu duten ikasleek eginiko lanak daude ikusgai. Bidai erakusketa uztail osoan egongo da zabalik eta pintura erakusketa uztailaren 11an itxiko da. Harresi aretoan berriz, uztailaren 9an Mari Karmen Garai pintorearen erakusketa zabalduko da eta 25a bitartean egongo da zabalik. Kasu honetan 31 kuadro egongo dira ikusgai eta bodegoiak, itsasoa, paisaiak, erretratuak... ikus daitezke.



Begoña

lurrindegia

Drogeria
Jostailuak
Opariak

Gipuzkoa Etorb. 33,
Musakola Auzoa,
Tfnoa: 79 03 73

ELEKTRONIKA
ARTIKULUEN
SALMENTA



J. Carlos Guerra, 1 Tfnoa: 79 91 64 ARRASATE

FELIPE
MADINA
ZURAK

Zarugalde, 40 ARRASATE
Tfnoa: 79 13 78

MITOLOGIA

LAMINAK ETA
MAIDEAK (II)

Oso ezaguna da Gargartzako laminari buruzko ipuina:

Korrioneko mutila Kobateko Kobaundira joan omen zen. Han, lamina bat topatu zuen; emakume ederra omen zen, hemengo kristauak baino ederragoa. Ezkontzeko hitza eman zion lamina horrek, berak zenbat urte zeuzkan igartzen bazion.

Mutila auzoko andre batengana joan zen, konponbide bila. Honek, berak igarriko zuela esan zion.

Andre hori joan omen zen Kobaundira. Ipurdia kobara begira jarri omen zen, burua makurtu eta hanka bien artetik atzera begiratzuz, lamina kobatik irten eta hur ikustean, bildurtuta esan zuen: "Ehun eta bost urte baditut, baina ez dut behin ete horrelakorik ikusi".

Andreak adina esan zion mutilari eta honek laminari, eta azkenean ezkontzeko gelditu ziren. Baina mutilak amari esan zionean, honek laminaren hanketara begiratzeko esan zion. Mutilak begiratu zuen hanketara eta laminak ahatearenak bezalako hankak zituela konturatu zen.

Mutila, bildurtu eta etxera joan zen. Gero, gaisotu eta hil egin omen zen.

LIHER LARREA



Berridi argazki zuzendaria, Leopoldo Panero poeta "eroa" ea Ricardo Franco zuzendaria.

Panero, filme protagonista berriro Santa Agedan

Dozena bat teknikarik osatutako zinemagile talde bat Santa Agedako eritetxe psikiatrikoan izan da aste honetan, Leopoldo Panero eta bere familiaren inguruko filme baten filmaketa hasten. Bost egunez izan dira eritetxean Ricardo Franco zuzendaria eta bere taldea, gehienbat teknikari euskaldunez osatua, izan ere, produktorea Imanol Uribe da eta fotografia zuzendaria Carlos Berridi.

Filme berri honen izena "Despues de tantos años" da, eta Jaime Chavarrik duela 15 urte filmatutako "El desencanto" filmearen jarraipena da. Filme hura, Panero anaien (Leopoldo, Michi eta Juan Luis) elkar-gorrotoen kronika


gordina zen, elkarrizketen bitarteko dokudrama bat. Bigarren parte hau ez da oso desberdina izango, ezinikusiak bere hartan baitiraute, eta Santa Agedan dagoen Leopoldo poeta kexu denez, bere anaiak ez datozkio bisitatzerara inoiz ere. Poeta "eroak" ARRASATE PRESSI deskribatu dionez, filme hauen funtsa "familiarren heriotza da, filizidio baten istorioa".

Francok Arrasaten hasi du filmaketa, eta ondoren beste bi anaiak elkarrizketatuz segituko du. Santa Agedan lan egitea "oso zaila" egiten zaio la aitortu zigun, bertan "bazertereko jendea dago, eta horien artean, are bazerterekoagoa da Leopoldo, martzianoa

besteentzat". Poetarekin hizketaldi luzeak izan ditu zuzendariak, baina zuku guztia ezin izan diola atera komentatzen du, Leopoldok burutazio intelektualetan murgiltzeko ohitura daukanez.

Poeta eroso dago kamairen aurrean, baina aspertuta dagoela igertzen zaio. "Hilotza ikustera, ni ikustera zatorzte, baina hilotz eskisitoa naiz, surrealisten esaten zuten bezala". Eritetxeke sistema psikiatrikoa kritikatzeko segitzen du, han ez dagoela zororik, "zoratu arazitakoak baizik", eta "17.000 bider pozoinduta" bera hiltzen saiatu direla komentatzen digu, mila autore zitatzuz, mila konspirazio aipatuz...

Elektroinjekzio
Zerbitzua



ARRASATE KONPONKETAK

Zaldispe kalea, 5 Tfnoa: 79 95 41
ARRASATE

EPELDE

argazki denda

Iturriotz, 24
ARRASATE
TFNOA: 79 19 71



OIHALAK

Errekabarren, 20
ARETXABALETA
Tfnoa: 79 80 90

• ESAERA ZAHARRA •

*“Etorkizuneko
olak bururik ez”*

• JEROGLIFIKOA •



Noiz jaten duzu?

• GURUTZEGRAMA •

1	2	3	4	5	6	7	
8							9
10							
11					12		
13							
14			15				16
17							18

J. B. AGORRIA

Horizontalak 1. Erabili, zerbait lortzearen. 8. Egoitza, Zerkaosteta kalean. 10. Bizio. 11. (Ald.) Zerbait hegaztiren gangarra. (Ald.) Esponja. 14. Neu. 15. Bost bokalak nahasturik. 17. (Ald.) Lumorraz. 18. Eguzkiaren jainko egiptiarra.

Bertikalak 1. Guztiz ona. 2. Euritako. 3. Gure planeta. 4. Gaztatzaila. 5. Apezak. 6. Titania. 7. (Ald.) Zuen orainaldian. 9. Gauza. 12. Nazioarteko Batzorde Olinpikoa. 16. Itsasoan ugarri.

• HOROSKOPOA •

Aries Ez zaude batere baikor aste honetan, dena beltza ikusiko duzu.

Taurus Saia zaitze egoera berri hori aztertzen, argiago ikusiko duzu eta.

Gemini Abuztua baino lehen bukatu beharko zenuke aspaldi hasi zenuen lan hori.

Cancer Berriz hasieratik hasi behar baduzu ere, gaitasun berezia duzu.

Leo Ez egon ea zerbait gertatzen den itxoi ten. Nagikeria astindu eta mugiz zaitetz.

Virgo Iritziz aldatzeak ez dizu inolako mesederik egin, ez zaitetz beldurtu.

Libra Etxean arazo batzuk izango dituzu, kalean pasatzen duzu eguna eta.

Scorpio Musika eta liburu onak behar dituzu etxean goxo-goxo geratzeko.

Sagitaris Sentitzen duzun hutsune hori betetzea zure esku dago, zure buruari proposatu baino ez duzu egin behar.

Capricorn Huts egin dizun pertsona horrek inoiz ez zaitu kontutan eduki.

Aquarius Betiko lagunekin inoiz baino hobeto ibiliko zara.

Piscis Obsesionatuta zabilta hori lortzeko, baina ez duzu oso argi komeni zaizun.



ARRASATEKO UDALA

UEUko ikastaroetan parte hartzeko bekak

Arrasateko Udaleko Euskara Batzordeak, urtero bezala dirulaguntzak eskaintzen dizkie Udako Euskal Unibertsitateko (UEU) udako ikastaroetan parte hartu nahi duten arrasatearrei. Ikastaroak Iruñean izango dira uztailaren 19tik 31ra.

Eskaerak **uztailaren 14a baino lehen** aurkeztu behar dira.

Informazio gehiago nahi izanez gero, jo Euskara Zerbitzura.

• DORLETA LASAGABASTERREN GOMENDIOA •



Udako kirol bat gomendatu digu Dorletak: urpean ibiltzea edo buzea-tzea. Uretako bonbo-nekin eta jantziarekin ibiltzea ere gustatzen zaio, baina urruti joan beharra dago eta kirol garestia da hori. "Aletak, betaurrekoak eta tuboa ere nahikoa dira". Ur sakoneterako sartze-ko, ikastaroak egin eta prestatu beharra dagoela ere gogora ekartzen du. Hondartzara joan eta jende artean agobiatu beharrean, haitzetara joatea gustatzen zaio Dorletari. "Urpeko mundu isil hori, oso atsegina da. Baina, hori bai, ikusteko bakarrik, eta ez arrantzan egiteko!"

• KOMIKIA •



• PROGRAMAZIOA •



- 12 Astelehena**
1.30 Eguerdiko Berriak
8,8.30, 9 Berriak
9.30 Asteko Zinea:
"Harreman arriskutsuak"
- 13 Asteartea**
1.30 Eguerdiko Berriak
8,8.30, 9 Berriak.
9.30 SORGIN PUNKY
- 14 Asteazkena**
1.30 Eguerdiko Berriak
8,8.30, 9 Berriak
9.30 SORGIN PUNKY
- 15 Osteguna**
1.30 Eguerdiko Berriak
8,8.30, 9 Berriak
9.30 SORGIN PUNKY
- 16 Ostirala**
1.30 Eguerdiko Berriak
8,8.30, 9 Berriak
9.30 Asteko Zinea:
"Harreman arriskutsuak"

• SOLUZIOAK •

Egunero.
JEROGLIKOA
Ud. 9. Ezgaita. 12. NBO. 16. Ur.
Lurra. 4. Irtolea. 5. Abadeak. 6. Ti. 7.
Bertikalak 1. Bikaina. 2. Aterkin. 3.
Ra.
16b. 14. ni. 15. eaoui. 17. Aniak. 18.
de. 10. Kerra. 13. Arrodnaq. 13. Ika-
Horizontalak 1. Balaia. 8. Iurbi-
GURUTZEGRAMA

mokasin
Zapatak eta osagarriak
Kontzeziño, 6
Tfnoa: 76 06 78
ARRASATE

ITSASKI
ARRANDEGIA
Arrain freskoa eta jaki izoztuak
Uribe Auzoa
ARRASATE
Tfnoa: 79 98 94

LIPOESKULTURA eta ZELULOLIPOLISIA
Zelulitia, grasa eta loditasuna behin betirako kentzeko.
ESTETIKA KLINIKA
Santa Kruz, 24-1a (1a eskailera)
ARETXABALETA TFNOA: 79 13 54

Monte taberna
Maalako errabala, 11
Tfnoa: 79 20 56

Ondo jarrea eta gainera eroso joatea gustatzen bazaitzu...


Elisabeth

*Zugandik hurbil eta harrituako zaituen prezioekin
San Andresen, autobus geltoki ondoan.*

Araba Etorbidea, 18 ARRASATE Tfnoa: 77 14 86

KIROL BAKOITZERAKO ERANTZUN BAT

**Astore, Reebok, Nike, Adidas, Mito,
Karhu, Avia, Saucony, Quicksilver,
Libero, Linea 7, Asics, Salewa, Boreal,
Bestard, Ellesse, Lutha, O'Neill...**



**ARRASATE
KIROLAK**

Kontzeziño, 8
Tfnoak: 79 46 12 / 77 12 47
ARRASATE

